

## **2/2024 INSTRUKZIOA, APIRILAREN 16KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEARENA.**

**HARTZAILEAK: SAILETAKO ZERBITZUKO EDO KUDEAKETA EKONOMIKOKO ZUZENDARITZAK, ORGANISMO AUTONOMOETAKO ZUZENDARITZAK, EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO GAINERAKO ERAKUNDEETAKO ZUZENDARITZA-ORGANOAK, KONTRATAZIOA SUSTATZEN DUTEN UNITATE EDO ZERBITZUAK**

**XEDEA: KONTRATU TXIKIAK ETA DATUEN-BABESA.**

### **1. SARRERA**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua —persona fisikoak babesteari buruzkoa da, haien datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen du— eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa indarrean sartu zirenetik, kontratazio publikoa araudi horretatik eratorritako eskakizun berrietara egokitu behar izan da.

Beraz, administrazioak edo kontratistak datu pertsonalak tratatzen dituztenean, araudi hori goitik behera errespetatu beharko du.

Gainera, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretua onartu ostean, tratatutako informazioaren eta emandako zerbitzuak modu egokian babesten direla bermatu beharko da eta kontratazio publikoan ere eragiten duenez, kontratu txikiak barne hartuko dira.

Lehenago esandakoarekin batera, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoa ere kontuan hartu behar da, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) zuzentzarauen transposizioa egiten den Espainiako ordenamendu juridikora; bereziki, datuen-babesari eta konfidentziasunari buruz dagokienez.



Hala, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezartzen du zeintzuk diren kontratazio-espeditentea osatzen duten dokumentuak, kontratu motaren edo izapidetzearen arabera. Zehazki, kontratazio-organoak administrazio-klausula partikularren agiriak (AKPA) onartu behar ditu.

Ondorio horietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 4. artikulua 1. apartatuak kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularrari esleitzen dio administrazio publikotzat hartzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko botere adjudikatzailerik egin beharreko kontratuen administrazio-klausula zehatzen pleguen eredu tipoa onartzea antzeko izaera duten kontratu-kategoria jakin batzuetarako. Hala, AKPAren eredu eta edukia ezartzen dira urtero, eta bertan agertzen dira datuak babesteari buruzko **II.0, II.8, VII.1 eta VII.2 eranskinak**.

## 2. LEHIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 28. d) artikulua ezartzen duenez, eginkizun hau bete behar du Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak: «*Kontratazio publikoaren alorrean egokitzen hartzen dituen arauak, zirkularrak, jarraibideak edo gomendioak prestatzea eta proposatzea, dagozkion eskumenen eremuan*».

Kontratu txikietan datu pertsonalak babesteari buruzko araudia modu egokian aplikatzen dela errazteko eta zaintzeko, instrukzio hau idazteari ekin zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Datuak Babesteko ordezkariarekin lankidetzan.

## 3. DATUAK BABESTEAREKIN LOTUTAKO BETEBEHARRAK

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 122.1 artikulua arabera, baldintza-agirietan berariaz adierazi behar da kontratista izango denak datuak babesteari arloan indarreko araudia errespetatzeko betebeharra duela. Era berean, AKPAren klausula orokorretan, datu pertsonalak babesteari buruzko gainerako betebeharrak jasotzen dira. Gainera, administrazio-klausulen agirietan ez denez 122.2 artikuluan jasotako datuen babesari buruzko aurreikuspenik egiten, agiriak ez dute deus balio.

Hala ere, eta kontratu txikiei dagokienez, SPKLren 118. artikulua espeditentea osatzeko eskatzen duen nahitaezko dokumentazioaren artean ez dago AKPAren antza duen dokumentaziorik. Honako hau baino ez da eskatzen: 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duen faktura bat obra-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoa zerbitzu- edo



hornidura-kontratuak direnean; gastuaren onarpena eta premia-txostena eta atalaseen aldaketarik eza. Horregatik, kontratu txikietan ez dagoenez gainerako kontratuetan erabiltzen denaren antzeko eredu ofizialik, zalantzak sor daitezke zuzendaritza sustatzaileak –datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna den aldetik– datu pertsonalak tratatu behar dituenan adjudikaziodunari zer betebeharrak ezarri behar dizkion zehaztean.

Horri dagokionez, zuzendaritza sustatzailea da kontratuaren xede diren datuen tratamenduaren arduraduna Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 4. artikulua 7. apartatuaren arabera, non zehazten baita nor den «tratamenduaren arduraduna» edo «arduraduna»: bakarrik edo beste batzuekin batera, fitxategiaren helburuak eta bitartekoak erabakitzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bestelako erakundea; Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak erabakitzen baditu tratamenduaren helburuak eta bitartekoak, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbide horrek berak ezarri ahalko du nor izango den tratamenduaren arduraduna edo zein izango diren hura izendatzeko irizpide espezifikoak.

Datuen babesaren arloan, kontratu txikiei dagokienez, Administrazioak bi betebeharrak errespetatu behar ditu:

1. Kontratazio-organoak datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa eman behar die lizitazioan eskaintza bat aurkezteko gonbidapena jaso duten enpresei, organoak berak datu pertsonalen inguruan egindako tratamenduari buruz. Datuen tratamendu jakinaren «informazio-klausulak» dira.
2. Adjudikaziodunak datu pertsonalak tratatzeko enkargua sinatu behar du, zuzendaritza sustatzaileak idatzitakoa, baldin eta datu pertsonalen tratamendua egiten bada, hala nola datu pertsonalen bilketa formularioetan, pertsonen zerrendetan sartzea, elkarrizketak egitea, telefono-deiak kudeatzea, kabinete psikologikoak kontratatzea, irudiak ateratzea...

Adjudikaziodunak, datu pertsonalak tratatu baditu, eragileen kontratua sinatu beharko du DBEOren 28.3 artikuluan ezartzen dena betez. Artikuluan honako hau agintzen da: «*eragileak gauzatu beharreko tratamendua kontratu batek edo Batasunaren edo estatu kideen zuzenbidearen araberrako beste egintza juridiko batek arautuko du, zeinak eragilea arduradunarekin lotuko baitu eta tratamenduaren gaia, iraupena, nolakotasuna eta helburua, eta datu pertsonalen izaera eta interesdun-kategoriak eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak ezarriko baititu*». Betebeharrak hori aplikatu egin behar da kontratua zer motatakoa den gorabehera eta haren izapideak egiteko modua edozein dela ere. Ez SPKLk, ez DBEOk, ez eta DPBEBDbk ere, ez dute salbuespenik ezartzen datu pertsonalen tratamenduaren eragilearen kontratua sinatzeko.



Datu pertsonalen tratamendurako enkargu hau **idatziz** jaso behar da beti, bai eta izapidetzea eta harpidetzea elektronikoki egiten denean ere, DBEOren 28.9 artikulua agintzen duenez. Ezin dira alde batera utzi erantzukizun proaktiboari dagozkion betebeharrak, eta bereziki tratamenduaren arduradunak bere ekintza guztiak dokumentatzeko duena, DBEOk agindutakoa betetzen duela eta beteko duela frogatzeko.

Hortaz, adjudikaziodunak edo kontratistak, gutxienez, honako hauek egin behar ditu:

1. Datu pertsonalak tratatzeko enkargua sinatu eta betetzea (eredua II. eranskinean dago).
2. Bere langileei behar dituzten jarraibideak ematea, datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak behar bezala bete ditzaten, eta horiek betetzen direla zaintzea.
3. Kontratuaren xedearekin lotuta dauden datuen konfidentzialtasuna bermatzea, nahiz eta ez izan publikoak edo nabarmenak, eta, langileek behar ez bezala erabiltzen badituzte, erantzukizuna bere gain hartzea. Betebehar hori kontratuaren funtsezko baldintza bat izango da, eta ez betetzea berau suntsiarazteko arrazoia izango da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Datu pertsonalen babesaren arloko legezko betebeharrak behar bezala betetzen direla bermatzeko, honako eranskin hauek eranstu dira.

I. eranskinak bat etorri behar du kontratazio-organoaren datuen tratamendu zehatzari buruzko informazio-klausulen edukiarekin. Zalantzarik izanez gero, dagokion datuak babesteko erreferenteari kontsulta dakioko.

II. eranskina datu pertsonalak tratatzeko enkargu-eredu bat da.

Horregatik, bi eranskinetako informazioak bat etorri behar du Tratamendu Jardueren Erregistroan (TJE) ezarritakoarekin. Horretarako, edozein lizitazio egin aurretik, tratamendu-jarduera aipatutako erregistroan erregistratuta eduki behar da. <https://www.euskadi.eus/rat>



## 1. ERANSKINA

### KONTRATU TXIKIAK

(kontratu guztietan, beteta entregatuko zaie eskaintza eskatzen zaien pertsoneri, datuen babesari buruzko informazioa emateko.)

1. **Tratamenduaren organo arduraduna eta harremanetarako datuak:** Dagokion kontratazio-organoa (posta-helbidea: .....; tel.: .....).
2. **Datuak babesteko ordezkaria eta harremanetarako datuak:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko ordezkaria. Helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Telefonoa: 945018680. Webgunea: <https://www.euskadi.eus/datu-babesa/>
3. **Tratamenduaren helburua:** kontratazio publikoaren prozedura kudeatzea, fase guztietan, barnean hartuta betearazpena, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta azkentzea, baita adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakiak eta kontratatari egotzi ahal zaizkion eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak ere.
4. **Gordetzeko epea:** zer helburutarako jaso diren, helburu hori betetzeko beharrezkoa den denbora.
5. **Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da, interesduna parte duen kontratu bat egikaritzeko, eta, halaber, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (6.1 artikulua b) eta c) letrak) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
6. **Hartzaileak:** Interes legitimoa dutenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari jakinarazi ahal izango zaizkie datu pertsonalak.
7. **Eskubideak baliatzea:** Datu pertsonalak jasotzen zaizkien pertsonak honako eskubide hauek baliatu ahal izango dituzte: datuak irispidean izatea, zuzentzea, ezerezteia (ahazteko eskubidea), datuen tratamendua mugatzea, datuen tratamenduaren aurka egitea eta tratamendua automatizaturik ez izatea.
8. **Datu pertsonalen babesari buruzko informazio xehea, hemen:**
  - a) Gure web orria ([www.euskadi.eus/datu-babesa/](http://www.euskadi.eus/datu-babesa/))
  - b) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB) 2016/679 (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
  - c) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa  
<https://www.boe.es/eli/es/lo/2018/12/05/3/con>

Jasotako datu pertsonalak nori buruzkoak diren, pertsona horrek aipatu diren eskubideak egikaritu ahal izango ditu tratamenduaren organo arduradunaren aurrean, eskubideen egikaritzaren prozeduraren bidez. (<https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/>). Era berean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan edozein erreklamazio egiteko ahalmena du, edo Datuak Babesteko ordezkariari aurretiazko erreklamazio bat aurkez diezaioke.



([https://www.euskadi.eus/arbitrajea\\_salaketa\\_erreklamazioa/aurreiazko-erreklamazioa-datuak-babesteko-ordezkararen-aurrean/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/arbitrajea_salaketa_erreklamazioa/aurreiazko-erreklamazioa-datuak-babesteko-ordezkararen-aurrean/web01-tramite/eu/)).

## 2. ERANSKINA

### KONTRATU TXIKIAK

(kontratistak eta zuzendaritza sustatzaileak sinatu behar dute)

#### KONFIDENTZIALTASUN- ETA DATUEN TRATAMENDU-KONTRATUA

Alde batetik, dagokion ZUZENDARITZA, ..... (sozietatearen helbidea: .....PK: ..... IFZ:.....), datuak TRATATZEKO ARDURA DUEN ORGANOA den aldetik, behean sinatzen duenak ordezkatuta, zuzendaritza honetako zuzendaria baita: .....

Eta, bestetik, ..... (sozietatearen helbidea: ..... IFZ:.....) TRATAMENDUAREN ERAGILEA den aldetik, behean sinatzen duenak ordezkatuta, honako KARGU/ARDURA hau baitu: .....

<b>Tratamenduaren izena</b>	Informazio hori Tratamendu Jardueren Erregistroan (TJE) lortuko da
<b>Helburua</b>	Informazio hori Tratamendu Jardueren Erregistroan (TJE) lortuko da
<b>Kolektibo interesdunak</b>	Hemen adierazi behar dira nori buruzko datuak tratatuko diren.
<b>Tratamenduaren datu pertsonal hauek eskuratu ahal izango dira</b>	Hemen, ukitutako informazioaren identifikazioa gehitu behar da. Adibideak: izenak, telefonoak, helbide elektronikoak, NANA, helbidea, sexua, nazionalitatea, jaioteguna...
<b>Kontratu honen iraupena</b>	Markatu dagokiona
<b>Datu pertsonalekin zer egin kontratua amaitzean</b>	Aukerak: a) Tratamenduaren organo arduradunari itzuli datu pertsonalak —eta, hala badagokio, datu pertsonalak dituzten euskarriak—, prestazioa ematen amaitu ostean. Itzultzeaz gain, kontratistak erabiltzen dituen ekipo informatikoetan dauden datu pertsonal guztiak ezabatu beharko dira. Hala ere,



	<p>kontratistak kopia bat gorde ahalko du, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta betiere, kontratuaren betearazpenetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean.</p> <p>b) Datu pertsonalak suntsitu, prestazioa ematen amaitu ostean. Suntsitu ondoren, kontratistak idatziz ziurtatu beharko du suntsitu egin dituela, eta tratamenduaren organo arduradunari eman beharko dio ziurtagiria. Dena den, kontratistak kopia bat kontserbatu ahal izango du, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta, kontratuaren betearazpenetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean.</p>
<p><b>Azpikontatrazioa</b></p>	<p>Aukerak:</p> <p>a) Ez azpikontatzea kontratu honen xedea osatzen duten eta datu pertsonalen tratamendua dakarten prestazioak; salbuespen dira eragilearen zerbitzuen funtzionamendu normalerako beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak.</p> <p>b) Azpikontatrazioa baimentzen da. Hala ere, alde zuzenetik eta idatziz jakinarazi beharko zaio hori organo arduradunari, honako aurrerapen-aldia honekin:.....; azpikontatatu nahi diren tratamenduak adierazi behar dira, eta argi eta garbi identifikatu behar dira azpikontatista eta haren harremanetarako datuak. Azpikontatrazioa egin ahal izango da organo arduradunak ez badu aurka egiten ezarritako epean.</p> <p>Azpikontatista tratamenduaren eragilea ere bada, behartuta dago dokumentu honetan tratamenduaren arduradunarentzat ezarritako betebeharrak eta organo arduradunak emandako jarraibideak betetzera.</p>
<p><b>Nazioarteko transferentziak</b></p>	<p>Existitzen badira, adierazi</p>

### Alderdien eginbeharrak eta betebeharrak<sup>1</sup>

#### A. Tratamenduaren eragilearen betebeharrak

Tratamenduaren eragileak eta bere langile guztiek betebeharrak izango dituzte:

<sup>1</sup> Zuzendaritza sustatzaileak egokitzen dituen gai guztiak gehitu ahal izango dira, kontratu handietan jasotako tratamendu-jarduerei buruzko taula barne, beharrezkotzat joz gero.



1. Tratatu beharreko datu pertsonalak edo sartzeko jasotzen dituenak enkargu honen xederako bakarrik erabiltzea. Inola ere ezin izango ditu datuak bere helburuetarako erabili.
2. Datuak tratamenduaren organo arduradunak emandako jarraibideen arabera tratatuko dira, eta ezingo dira aplikatu edo erabili beste ezein helburutarako, ezta beste inoren esku jarri ere.
3. Isilpean gordetzea eskuratzen dituen datu pertsonalak —datu horiek gordetzeko betebeharrak bere horretan iraungo du tratamenduaren ardura duen erakundearekin harremanak amaitu ostean ere—.
4. Beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak ezartzea datu pertsonalen segurtasuna eta konfidentzialtasuna, erabilgarritasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek baimenik gabe aldatzea, galtzea, tratatzea edo eskuratzea saihesteko. Gainera, hala badagokio, datu pertsonalak pseudonimizatu eta zifratu beharko ditu, eta datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar berrezarri, gertakari fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero. Era berean, tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarri diren neurri tekniko eta antolakuntzako en eraginkortasuna aldiari-aldiari egiaztatuz, ebaluatu eta balioztatu beharko du.
5. Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak berariaz eta idatziz hartzen dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko konpromisoa. Eta, gainera, organo arduradunaren esku uztea goragoko hori egiaztatuzko dokumentazioa.
6. Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen datu pertsonalak babesteko behar den prestakuntza bermatzea.
7. Tratamenduaren ardura duen organoari laguntzea, interesdunen eskubideak —datuen babesari buruzko araudian aurreikusitakoak— baliatzeari erantzuten. Ukitutako pertsonak tratamendueragilearen aurrean baliatzen dituztenean eskubideak, berehala jakinarazi beharko diote tratamenduaren ardura duen organoari.
8. Hala badagokio, segurtasun-urraketa bidegabeko atzerapenik gabe jakinaraztea, eta, nolana ere, 72 orduko gehieneko epea amaitu baino lehen. (Informazioa gordeta zeukaten gailuen galera edo lapurreta...)
9. Tratamenduaren organo arduradunaren esku jartzea betebeharrak betetzen direla frogatzeko eta dagozkion auditoretzak edo ikuskapenak egiteko behar duen informazio guztia

Tratamenduaren eragileak datu horiek beste xede baterako erabiltzen baditu, edo beste baten esku uzten baditu, edo dokumentu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, hura ere tratamenduaren erantzuleztat joko da, eta berak erantzun beharko du, egon litezkeen arau-hausteak direla-eta.

#### **B. Tratamenduaren ardura duen organoaren betebeharrak**

Tratamenduaren arduraduna den organoari honako hauek dagozkio:

1. Aldez aurretik eta tratamendu osoan zaintzea Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorra eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetzen direla.
2. Tratamendua gainbegiratzea.

.....(e)n, 20...(e)ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

Tratamenduaren ardura duen organoa

Kontratista